

## **ZIZPA** GAZTETXEA

Edozein gertakari historikotzat jotzeko joera zabaldua den garai hauetan, Baionan gaztetxearen aldarrikapenak izan duen bilakaera aipatu nahiko genuke. Urteak dira, gazte belaunaldi ezberdinak gune autogestionatuak lortzearen alde ari direla. Patxa mugimenduaren garaian, etxe hutsak okupatu eta biziberritzeari ekin zioten eta Patxoki izenez ezaguna den lokala biziarazi zuten.

2000. urtean, gazte belaunaldi berri bat agertu zen eta jabe pribatu batekin alokairu merke bat negoziatu ondotik, Baionako lehen gaztetxea ireki zuten. Maleruski, jabeak jasandako presioek proiektua bertan behera utzi zuten eta hilabete gutxira gaztetxerik gabe gelditu zen Baiona.

Gure belaunaldia 2008an hasi zen biltzen. Okupazioaren hautua egin aitzin, Herriko Etxearekin negoziatuz joka genitzakeen kartak jokatzeko erabakia hartu genuen eta hala aritu gira lanean azken urteetan. Gorabehera anitz izan ditugu, beti ez gira entzunak izan, usu ez gira seriozki hartuak izan, baina azkenean akordio batera iritsi gira eta joan den udan iragarri genuen gisan, Baionan ere gaztetxe bat izanen dugu laster.

Guretzat, garaipen bat da: Gure aitzineko belaunaldiek eta gureak urteetan eraman dugun lanari esker lortu dugun garaipena. Baina, ezin ditugu ahantzi, Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo, gune autogestionatuak dituzten trabak. Bilboko Kukutza, Iruñeako Euskal Jai eta Donostiako Kortxoenea heldu zaizkigu burura, besteak beste. Hiruak eraitsiak izan dira, Herriko Etxe ezberdinen konplizitatearekin. Euskal Herritik kanpo ere, Katalunian, Danimarkan edo Herbeeretan borroka etengabeak eramaten dituzte gazte anitzek, gune autogestionatuak bizirik atxikitzeko.

Baina badira bizirik eta xutik irauten dutenak ere. Bartzelonan, Can Vies botatzen hasi eta berehala, herritarrek eraistea oztopatu eta eraikina konpontzeari ekin zioten. Iruñean, alde zaharreko egoitza bat okupatu dute berriki...

Agur berezi bat eskaini nahi genieke ere, Baxe Nafarroa, Xiberoa eta Lapurdiko gazte asanbladei: Gaur egun egoitzarrik gabe diren Oztibarreko "Bota"-ko kideei, lokal bat lortzeko borroka etengabea ari diren Hendaiako gazteei, Garaziko gazte asanbladari, ekitaldi andana antolatzen dituen, Agusti Xahoren sorlekua biziberritu dute Prefostako gazte xiberotarrei, beti gazte eta aktibo segitzen duen Itsasuko Goxoki zaharrari, Ttattolari, Aldaxkari, etab. etab.

Eta beste xoko anitzetan ere lanean diraute, herritarrenak diren tresna eta proiektuak aitzina eramanez. Eredu dira guretzat. Gisa bereko lana eraman nahi dugu Baionan.

Gu, Herriko Etxearekin akordio batera iritsi gira, eta espero dugu orain bezala ondoko urteetan ere, boterean izanen diren indar ezberdinekin adostasunean lan egiteko aukera izanen dugula, Baionako Gaztetxea belaunaldiz belaunaldi transmitituko dugun tresna bilaka dadin.

## **ZIZPA** GAZTETXEA

Baionan gaztetxe bat lortzea urte luzeetako lanaren emaitza izan da, horregatik handizki ospatu nahiko genuke proiektu berri honen abiatzea. Urtarrilaren 23an izanen da irekitze festa handia eta egun guziko egitaraua antolatu dugu egun horretarako:

- Goizean irekitze ofiziala
- Bazkaria Kli-K txarangarekin
- Poteoa elektrotxarangarekin
- Kontzertuak: GATIBU etab.

Txartelak gaurdanik salgai ematen ditugu:

- Bazkaria + kontzertua : 16€
- Bazkaria edo kontzertua bakarrik: 10€

Momentuz konponketa eta apainketa lanetan ari gira gaztetxean. Laster hartuko dugu eguneroko martxa: Egunero tailer ezberdinak izanen dira gaztetxean, horien artean yoga, tango, bertso eskola... etab. Errepikak egin nahi dituzten musika taldeei ere gunea prestatuko diegu urririk, eta mota ezberdinetako ekimen andana antolatuko dugu.

Joan den udan erran genizuen moduan, gune hau ez da pertsona talde baten eskuetan bakarrik izango, denei irekia baizik. Dei honekin espero dugu elkarte eta kolektibo ezberdinekin eskuz esku lanean aritzen ahalko girela biharko Baiona eraikitzeko. Etorri eta parte hartu gurekin gaztetxearen proiektuan. Ekarri ideiak, ekarri proposamenak, ekarri lanerako gogoia... denen artean biziarez dezagun Baionako gaztetxea !